

# OARSOALDEKO KRISTAUAK EUSKARAZ

Mikel Ugalde

**K**ontu jakina da Oarsoaldea osatzen duten herrietan euskararen indarra desberdina dela. Desberdina da Oiartzun edota Errenteriako egoera soziolinguistikoa, desberdina Lezo eta Pasaiarena. Are gehiago, herri berean ere, Beraun edota erdigunea esaterako, arras diferentek dira. Egia da neska-mutilak euskaraz eskolatzten diren neurrian euskara ezagutzen duen multzoaren kopurua haziz joango dela, baino denok dakigu euskara ezagutzetik hitz egitera zer nolako jauzia dagoen.

Zer da, bada, erdaldunagoak diren herrietan euskaldunoi gertatzen zaiguna? Gutxiengoak garelako. Gutxiago gara kirol elkarteetan, kultur elkarteetan, aisialdi ekintzetan, etxeetako bizilagunen bilkuretan, tabernetan, kalean, salerosketan... eta elizan. Aitorpen hau egiterakoan ez dugu inongo negar malko antzurik debalde eskaini nahi. Balizko olak ez du burdinik sortzen eta balizko hizkuntz egoerak ez du ezer aldatzen.

Garai batean Txilardegik aipatzen zituen matematika kontuetan sartu gabe ere, jakin bada-kigu elebiduna omen den gizarte honetan, alderoa gehientsuenetan euskaldunen kaltetan erabakitzen dela. Zortzi-hamar euskaldun dauden bilera, topaldi edota elkargunean, pare bat elebakar egokitzen baldin bada, bertako saioa nagusiki erdaraz mamituko da. Badira salbuespenak, baina horrelakoetan lehen hitzak sarrera gisa egin eta gainontzeko guztia zein hizkuntzatan mamitzen den badakigu. Errioxako ardoz osatutako basoerdia atsegin izan dakiguke, are gehiago bodega on batekoa baldin bada. Hala ere, basoerdi hori litro bat urarekin nahasten baldin bada, akabo ardoa usaindu eta dastatzeko aukerak! Antzeko zerbait gertatzen zaigu euskaldunoi, euskara badenik ere ez dela antzematen.

## ELIZAREN HIZKUNTZA JOKAERA AZTERGAI

Euskararen historiari begiratzen baldin badiogu ikusiko dugu elizaren joerak eta jarrerak eragin handia izan duela, bai onerako eta baita kalterako ere. Euskal literaturaren historiari begirada bat

ematea aski da eliz gizonen zer nola ekarria eskaini dioten ikusteko: Axular, Leizarraga, Tartas, Kardaberaz, Mendiburu, Gandiaga, Agirre... eta abar luzea aipa genezake.

Literaturan ezezik, euskararen bizitzan bertan ere zer ikusi zuzena izan du elizak. Euskara eta euskalduna gutxiesten zen hartan, bigarren mailako hizkuntza gisa hartzen zen hartan, medikuaren, idazkariaren, alkate edota apaizaren jarrerak eragin zuzena izan zezakeen euskarari ezinbesteko zor zitzaion prestigioa itzultzeko. Praktikan, ikusten denez eta euskararen kalterako, eliz gizon guztiak ez ziren Jose Maria Satrustegi bezalakoak.

Aitortu beharra dago joan zen mendean Joan XXIII.ak deituta egin zen Vaticano II. Kontzilioak herrialdeetako hizkuntzei leioa zabaldu ziela aire freskagarria sarraraziz. Run-runean entzuten (?) genituen latinezko meza haien orde, elizkizunak euskaraz ere jarraitzeko aukera eskaini zitzaigun. Erronka berri baten aurrean aurkitzen zen Eliza eta ongi erantzuten jakin zuen. Elizkizunetan erabili ohi diren testuak, elizen arteko euskarazko Biblia atsegina eta oso duina da euskararen trataerari dago-kionez. Liturgiaren eskakizunei ere ongi erantzun zioten fraile eta mojek, horra hor salmoen inguruan eginikoa lekuko. Gaur egun ere Arantzazu, Hemen eta euskaraz argitaratutako hainbat liburutan erabiltzen den hizkerak ez du aitzakiarik. Badira, beraz, baikor egoteko motiboak.

## HIZKUNTZEN ERABILERAZ

Errenteria bezalako herrietan, euskarari dagokionez, eliza bide gurutzean aurkitzeaz gain, gurutze bidean aldapan gora ezinean aurkitzen dela esan genezake. Gutxienean sakon aztertzeke kontua dela ezin uka.

Batetik, aitor dezagun, eliz elkarten barne bizitza gehienbat erdaraz bideratzen dela. Datu zehatzik ez dugun arren, egingo genuke apustu parroketako kontseilu bilerak erdaraz egiten direla. Sarrerako otoitza, agian euskaraz, eta gainontzeko guztia erdaraz. Euskaraz lantzen duten katekisten bilerak ere erdaraz egiten dira. Ez dugu

hori txarra ala ona denik esan nahi, aztertzeko kontua dela baizik.

Liturgiari dagokionez, elebitasunaren erabile-rari buruzko apustua egin da gehienetan. Hiletetan familiaren nahiari jaramon egiten bazaio ere, gainontzeko jaiegunetako mezak batzuek erdaraz, beste bakarren bat euskaraz, eta gainontzekoak elebieten. "Mezatan sermoi bera bi aldiz entzuten ari ote naizen sentipena dut" aitortzen zidan eliztar euskaldun batek. "Sermoieta belarririk mina ematen didan zarata eta burruna entzuten ari naitzela iruditzen zait apaiza euskaraz ari denean" suminez elebakarrak.

Etokizunari begira, berriz, eguraldiaren itxura ez da askoz hobea. Apaizak gero eta gutxiago, mezak bakantzen joango dira eta uste izatekoa da euskaldunen kaltetan izango dela. Pontikan, esaterako, hamarretako euskarazko meza kendu dute. Denboraldi baterako soilik? Hiletan ospakizunak bateratuz doaz, egun berean hileta bat baino gehiago ospatuko da batera. Nolako hizkuntz irizpideak jarraitu?

Hizkuntzaren arazo izateaz gain, batez ere hitzunen arazo izatera irits daitekeela konturatzen gara. Hitzunen kristau elkarte dela eta, komunitatea, kristau elkarte bateratu beharra, zati gaitzakeenari baino batzen gaituenari gehiago begiratu beharra aldarrikatzen da. Zuzen al gabiltza? Zerk osatzen du komunitatea? Nola-halako hizkuntzen elebietako erabilerak? Ala hitzunekiko eta hitzunen arteko jarrerak? Gaiari heldu egin behar zaio, beldurrak utzi eta behar den heldutasunez, eramanpe-nez eta maitasunez erantzun.

## OARSOALDEKO KRISTAUAK EUSKARAZ (OKE)

Arestian aipatutako egoera ikusiz, bailarako euskaldunen topagune izango den OKE egitasmoa martxan jartzeari ekin zaio. Izenburuak dioen bezala, bailarako euskaldunak, batez ere erdal giroan bizi diren euskaldunak, euskaraz biltzeko, hizketa aldiak mamitzeko, otoitz egiteko, elkar lagunduz aurrera egiteko eta une gozoak euskaraz pasatzeko aukera izan nahi du proiektu honek. Kontua ez da kristau elkarte berria sortzea, euskaraz bildu nahi duten kristauei aukera eskaintzea baizik.

Oraindano emandako pausoak abiapuntu gisa gogoan hartuz, hilerio bitan biltzeko aukera izango dute: Hileko bigarren asteazkenetan otoitza egin ondoren hainbat gai hausnartzeko. Laugarren ostegunetan, berriz, hainbat kristauren testigantzak jaso, hausnarketan sakondu eta elkarrizketatzeko. Horretaz gain, urteak aurrera egin ahala, egutegia osatuko da, noizbehinkako afari, ospakizun edota bertso saiorik ez da faltako.

Beharbada halako itxikeria susmoa hartuko dio bakarren batek, alegia, gero eta gehiago zabaldu beharra dagoen honetan, are gehiago mundu globalizatuan, horrela jokatzea eskaskeria irudituko zaio. Lasai, ez dago arriskurik. Pilak ondo kargatuak daudenean linternak argi hobea egiten du. Iparragirren Gernikako Arbolan dioenak badu gaur ere indarra: "eman da zabal zazu, mundua frutua". Saiatuko gara gure burua maitatzen, gure ingurukoak, euskaldun zein erdaldu-nak, etorkinak, gaixoak, alboratuak... maitatzen. Euskaraz maitatzen.

Oarsoaldeko  
Kristauak  
Euskaraz

Oarsoaldeko  
Kristauak  
Euskaraz